



Hiri Hezitzaileak

Gurasoen txokoa Udarako prest?
Zertan gabiltzan Euskeraz besteipe!



jakintzaikastola

agenda

URTARRILA

HAUR HEZKUNTZA

Maila guztiak: San Sebastian eguneko danborrada.
5 urtekoak: Jubilatuen egoitzara bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Majori kiroldegia eta plaza ezagutzera irteera.
3. maila: Ingelesko antzerkia.
4. maila: Aramara eta Olaberriara irteera 'Goierri areagotua' proiektuaren barruan.
4. maila: Talogintza tailerra.

DBH

4. maila: Izotz Jauregira irteera.

BATXILERGOA

Elgoibarko Makina Erramintako ordezkariaren bisita.

OTSAILA

OROKORRA

Santa Ageda bezperako ospakizunak.
Euskaraz Bizi eguna.
Euskal Inauteriak.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: D'elikatuzera.
2. maila: Pasaiako Aldaolara.
3. maila: Aramara irteera.
4. maila: Eroskira elikaduraz lanketa egitera.

DBH

4. maila: Hiri Hezitzailea egitasmoko ekintzak
Zuhaizti Zentro Sozialarekin batera.

BATXILERGOA

EHUn Orientazio azoka.

MARTXOA

OROKORRA

Kultur astea.
Korrika19.
Sahararen aldeko krosa.

HAUR HEZKUNTZA

4 urtekoak: Zirko emanaldia.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Mahai joko kooperatiboak.
2. maila: Zuhaizti zentrorira irteera.
2. maila: Donostiako Planetariumera.
4. maila: Zientzia museora irteera.
4. maila: Kirola eta osasuna lantzeko ekintzak.
5. maila: Gernikara irteera.
6. maila: Zuhaitz Eguna.
6. maila: Legazpiko Mirandaolara, Zeraingo mehategira eta Iztueta baserrira irteera.
Maila guztiak: Sahararen aldeko krosa.

DBH

1. maila: Ataungo Barandiaran museora.
txangoa
1. eta 2. mailak: Bazkari ekologikoa Oianguan.
1. maila: Mahai joko kooperatiboak.
4. maila: Solasaldi dialogikoa.
4. maila: Jon Andueza idazlearekin solasaldia.
4. maila: Alkoholiko Anonimoak elkarteko hitzaldia.
4. maila: Sexu heziketa ikastaroa.
4. maila: Jubilatuekin ibilaldi neurtuak.
Maila guztiak: EA21 foroa.

BATXILERGOA

Road Show ikuskizuna Stop Accidentesen eskutik.
Orienting saioa.
Donostiako artxiboetara irteera.



AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria

Legez lege

Duela ia urtebete, elkarrizketa bat prestatzen ari nintzela, galdera hau luzatu zidaten. «Zer aldatuko zenuke hezkuntzan?». Galdera sinplea zen, baina erantzuna...

Hotzean, hobetzekoak eremu asko zirela pentsatu nuen, baina erantzun topikoa eta oso azalekoa zela ere bururatu zitzaidan. Zer eta nola erantzun pentsatzen jarrita, azkenean, oinarri-oinarrian dagoenari leku egitea pentsatu nuen: legeari.

Hezkuntza legeak aldiro aldatzen ariteak ez digu inongo mesederik egiten. Irakasleok uneko legealdi bakoitzera egin beharreko egokitzapenak eta esfortzuak hurrengo legeak apurtzen eta birmoldatzen ditu. Lau urteroko joan etorri horiek iparra


non dagoen ez jakiteko arriskuan jartzen gaituzte.

Aurtengoan ere, LOMCE dela eta ez dela, berriro ere solfan jartzen dira egindakoak. Eta oraindik ere larriagoa dena: zalantzan jarri nahi dizkigute errotik gureak diren oinarriak. Baina noiz arte? Hurrengo legealdira arte? Eta gero? Posible al da hezkuntza proiektu sendo bat bermatzea legealdi bakoitzeko bide bat urratu behar bada? Non dago koherentzia? Non dago legeak berak bermatu beharreko bidea? Eta eskubideak?

Inoiz baino argiago definitu eta garatu beharko dugu gure hezkuntza proiektua, kanpoko erasoei aurre egiteko bide bakarra hori delako.

Lilatoian

Pasa den marxoaren 1ean Donostian egindako Lilatoia lasterketan 4000 emakumek parte hartu genuen, geure eskubideak aldarrikatzeko eta defendatzeko. Eta gu, Jakintza Ikastolako ikasleok, ez ginen gutxiago izan. 30 bat emakume bertaratu ginen, eta korrika eginez elkarrekin goiz polita pasatu genuen. Aupa gull!



DE LEY EN LEY

Hace casi un año, mientras preparaba una entrevista, me hicieron una pregunta: «¿Qué cambiarías en educación?». La pregunta era simple, pero la respuesta... En una primera reflexión pensé que había muchas cosas por mejorar, pero al final, me decante por hablar sobre la base de la educación: la Ley. Los cambios constantes de las leyes no nos hacen ningún favor, y las adaptaciones que hacemos en cada legislatura son arrojadas por la siguiente ley. Todo esto nos puede hacer perder el norte.

Este curso, una vez más, la LOMCE pone en entredicho lo realizado hasta ahora. Y todavía más grave: ¿Hasta cuando? ¿Hasta la próxima legislatura? ¿Y después? ¿Es posible garantizar un proyecto sólido si cada legislatura hemos de trazar un nuevo camino? ¿Donde está la coherencia? ¿Y los derechos?

Debemos de definir nuestro proyecto más claro que nunca, protegerlo de las agresiones exteriores, para poder crear un refugio.

Danele Sarriugarterekin solasaldia

Otsailaren 23an Danele Sarriugarte idazlearekin solasaldi polita izan genuen Jakintza ikastolan. Aurtengo ikasturtean ikastolako dinamikan parte hartzeko ekintza berri bat jarri dugu martxan, eta dinamika horrekin lotuta jaso genuen Sarriugarteren bisita. Horretarako, aurrez, *Erraiak* liburua irakurri genuen eta otsailaren 23an Jakintzako Komunitatea osatzen dugun ikasle, guraso eta irakasleok solasaldi interesgarria izan genuen Danelekin.



Aukeratutako liburua Danelek Beasaingo Igartza Literatura beka jaso zuenean idatzitako *Erraiak* izan da; bikote haustura mingarria oinari duen eleberria da idazle elgoibartar gaztearena.

Ordu bete luzez solasaldi polita izan genuen ikastolan: liburuaren antolaketa, pertsonaien izen ezak, jarrera hauskorak non-nahi agertzearen funtsa, onomatopeien erabilerak, parrafoen luzerak... gai teknikoek zein pertsonalez aritu ginen hizketan, tertulian.

Norberak irakurri eta buruan irudikatutako istorioari idazleak emandako zentzuaz osatzeko ariketa polita da ikastolan martxan jarri dugun dinamika!

UDARAKO PREST?

Dagoeneko? Esango du batek baino gehiagok. Oraindik goiz da!

Baina, uste baino lehen izango dugu uda ate joka, eta ordurako prest egotea komeniko da.

Zer egin? Nora joan? Nahi adina aukera daude: Ingeles udalekuak, euskara mugara, elkarrekilan Zuberoan, enjoy english, udaleku irekiak, atzerriko egonaldiak, surf udalekuak, gazte egonaldiak, itsasoa eta kultura...

Udaleku horiei buruz izena emateko epeak, egunak, prezioak eta orokorrean informazio gehiago nahiko bazenu, ikastolara jo besterik

ez daukazu, eta gustura asko lagunduko zaitugu.

Jakina, ikastetxean bertan ere, urtero bezala, ingeleseko udalekuak antolatuko dira, taldeak osatzen badira.

Beraz, egin plana, aukeratu gustukoa eta aurrera!!



El 23 de febrero nos visitó en Jakintza Ikastola la escritora Danere Sarriugarte, dentro de la dinámica que la ikastola a puesto en marcha este curso e impulsa la participación. El proyecto consiste en leer un libro en euskera para después comentarlo en un coloquio donde participan alumnos, profesores y padres de la comunidad de Jakintza.

Durante una hora, tuvimos un coloquio muy interesante sobre el libro *Erraiak* de la escritora elgoibartarra, donde hablamos de la estructuración del libro, la carencia de nombres de los personajes, el uso de onomatopeyas, la largura de los párrafos... Hablamos con Sarriugarte de temas técnicos y personales.

La dinámica puesta en marcha en la ikastola es un buen ejercicio para complementar la lectura personal y lo imaginado con las explicaciones de la escritora.

¿Preparados para el verano? Más de uno pensará que todavía es pronto, pero llegará antes de lo esperado, y conviene estar preparado. ¿¿Qué hacer? ¿A dónde ir? Hay muchas opciones por lo que si necesitas información o ayuda puedes acudir a la Ikastola y te ayudaremos encantados. Recordar que la Ikastola también ofrece la opción de apuntarse en las colonias de verano.



Jakintzak antolatutako ekintzetan ez ezik, herriko beste eragile batzuek antolatutakoetan ere parte hartzen dute ikasleek.

ORDIZIAN HEZI, HEZITZAILE IZANDA

Ordiziako Udalak 2008tik parte hartzen du *Hiri Hezitzailea* egitasmoan, eta proiektuko kide da Jakintza ikastola ere. Herriko beste talde eta eragile batzuekin batera, biztanleen garapena lantzeko ekintzak ari dira egiten ikasleak ikasturte honetan ere. Zertarako? Ba gizartetik jasotakoa gainerako herritarrekin partekatu eta elkarren bitza aberasteko.

Urteen poderioz belaunaldien, kulturen, administrazioen, elkarten... arteko transmisioa ematen da gizartean, eta guk ere haien herentzia jaso dugu, guk ondorengoei utziko diegun bezala. Urte askotan, familia eta ingurunea izan dira transmisio horren oinarria eta zutabea, baina azken hamarkadetan gizartea erabat aldatu da, eta beraz, baita trasmisio bideak ere. Eta horrek guztiak, hezkuntzan ere badu eragina.

Hiriak eragin zuzena du hezkuntzan, hiria etengabeko eragilea delako, anitza, eta hala, horrek duen eraginaren jakitun, 1990ean Hiri

Hezitzaileen Nazioarteko Lehen Biltzarra egin zuten Bartzelonan, hirietako biztanleen garapena bere horretan ezin dela utzi sinestuta. Hala, *Hiri Hezitzaile* programa jarri zuten martxan, ingurua ikusi, jasotakoa trukatu, eta hiri horretako biztanleen bitza aberasteko.

Hiri Hezitzaileak biztanle guztien prestakuntza eta garapena izan behar ditu gogoan, eta haurrak eta gazteak heziko baditu ere, borondate irmoa agertu behar du adin guztietako pertsonak bizitzan zeharreko prestakuntza izateko.

Ordiziak 2008an egin zuen bat proiektu horrekin, udaleko Euskara, Kultura eta Hezkuntza Sailak bultzatuta. Herriko elkarte, eragile, talde, norbanako eta ikastetxe ugariak parte hartzen dute bertan, tartean baita Jakintza ikastolak ere.

Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, *Hiri Hezitzailea* egitasmoa lehen lan ildoak zehaztu ziren 2008an, eta 2009an egin zen diagnostikoa, lehen oinarriak finkatzeko.

Lau helburu eta bost lan esparru finkatu ziren orduan, eta guztira 18



eragile ari dira parte hartzen: hiru ikastetxe, udaleko bederatzi sail eta teknikari, eta herriko sei elkarte. Hiri Hezitzailea egitasmoak herriko elkarten eta eragileen arteko harremana hobetzea du helburu, elkarren arteko lankidetzaz indartuz. Elkarrekin ekintza ugari antolatzen ditugu horretarako, bost eremutan: belaunaldien arteko elkartrukea, euskara eta euskal kultura, emakumea eta genero berdintasuna, gazteria eta partaidetza, eta gizarte inklusioa eta integrazioa.

Hiria, beraz, heziketarako eragile bihurtzen da bere osotasunean, eta bertan partaide dira herriko eragileek. Jakintza ikastolak ere ikasturte ugari daramatza Ordizian Hiri Hezitzailea programan parte hartzen. Ikasleek zuzenean parte hartzen dute proiektuan, eta hala, beraiek ere Hiri Hezitzaile bihurtzen dira.

Ikastetxeko maila ezberdinetan ekintza ugari egin ditugu, gizarteko eta herriko eragileekin, erakundeekin eta elkarteekin elkarlanean.

2014-2015 ikasturte honetan, adibidez, dozenatik gora ekintza egin ditugu, eta herriko beste agenteek antolatutakoetan ere parte hartu dugu.

Haur Hezkuntzako haurretatik hasi, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleetaraino.

Beraz, ikasle guztiek Zuhaizti jubiltu elkartearekin, Caritasekin, D'elikatuz



zentroarekin, Ordiziako Udalarekin, Garagunekoekin edo Ordizia Kolore egitasmoa kideekin eta ordezkariarekin egin dituzte ekintzak, errealitate ezberdinak ezagutu, bizi eta elkarri erakutsiz bizitza aberasteko.

Jakintza ikastolako ikasleek eta irakasleek ia ikasturte hasieran ekin zioten Hiri Hezitzailea egitasmoa

ekintzei, aurreko urteetako esperientziak oinarri hartuta. Haur Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek, esaterako, San Sebastian eguna ospatu zuten. Ordiziako Zuhaizti jubilatuen elkartean izan ziren, eta Sarriegiren martxa ikur hartuta aritu ziren txikiak danborra joz.

Zuhaiztik eta Caritas erakundeak sustatutako *Saski Solidarioa* ekintzan ere parte hartu dute DBHO1eko ikasleek, eta behar gehien dutenentzat jakiak bildu dituzte. DBHO2ko ikasleek, berriz, janari osasuntsu bat nola prestatu ikasi dute D'elikatuz zentrokoen laguntzarekin eta DBHko 4.mailakoak ere Zuhaiztikoekin elkarlanean aritu dira belaunaldi ezberdinen arteko harremanak estutzen.

DBHko 3. mailako ikasleek immigrazioa lantzea dute helburu Hiri Hezitzailea programaren barruan. Hala, Ordizia Kolorerekin batera herrialde ezberdinetako kulturak eta ohiturak ezagutu dituzte, ondoren gurearekin alderatzeko. Urte bete gazteagoek, DBHko 2.mailakoek, antzerkia eskainiko diete jubilatuei. Lehen Hezkuntzan, berriz, 5.mailakoak tapoiak biltzen ari dira Garagunekoekin elkarlanean Markel Lopezi laguntzeko, eta 3.mailakoak garai bateko Ordizia nolakoa zen ezagutzen ari dira.

HIRI HEZITZAILEA HOBETO ULERTZEKO HIRU ESPERIENTZIA

Lehen Hezkuntzako 5.mailako ikasleek Markel Lopezi laguntzea dute helburu. Tximeleta Azala izeneko gaixotasuna du gazteak, eta gaixotasuna sendatzen laguntzeko behar duen tratamendua ordaindu ahal izateko plastikozko tapoiak biltzen dituzte ikastolan.

Gainerako ikaskideei eta irakasleei gaixotasunari buruzko eta kanpainari buruzko informazioa eman diete, eta beraiek ere egin dute lanketa bideoen eta bestelako informazio iturrien bidez. Hala, ikastola osoan jarritako kaxetan ia 100 kilo tapoi bildu dira orain arte Maren Munduatek, Luken Garmendiak eta Oier Zubeldiak azaldu dutenez.

Tapoi horiek Garaguneko kideek jasotzen dituzte eta Sasietera eramane dituzte, ondoren tapoi horiek denak tratamendu zentro batera bideratzeko. Egitasmo horri esker, Garagunekoek egiten duten lana ere ezagutu ahal izan dute Lehen Hezkuntzakoek. Garaguneetan zein lan egiten duten ezagutu dute, eta bertara joaten diren kideak ere bai. Hala, *Draw my life* egitasmoaren bidez elkar ezagutzeko aukera izan dute.



Ordizia Kolorerekin eta herriko beste erakunde batzuekin batera, Ordizian bizi diren herrialde ezberdinetako pertsonekin izan dute harremana Jakintzako DBH 3ko ikasleek. Julen Calvillok, Ibone Aiestaranek eta Euken Sagardiak kontatu dutenez, galdeketak prestatu zituzten aurrena, ondoren galdeketa horiek bideoan grabatu zituzten eta argazkiak ere egin zituzten beraiekin lanean aritu diren etorkinekin.

Lankidetzan eskaini duten pretsona gehienak pakistandarrak izan dira, baina herrialde ugarietako errealitatea ezagutu ahal izan dute Jakintzako ikasleek. Izan ere, galdeketa horien bidez, kultura eta herrialde ezberdinetako ohituren inguruko informazioa bildu dute, eta errealitate anitzei buruz asko ikasi dutela esan dute ikasleek. Askari eder bat eginez erakutsi zieten parte hartzaileei Jakintzakoek egindako lana.



Belaunaldi ezberdinetako pertsonen arteko harremanak eta esperientziak trukatzeko aberasgarria dela oso ikasi eta ikusi dute DBH 4ko ikasleek. Ordiziako Zuhaitzi elkarterko jubilatuekin izan dute erlazioa *Hiri Hezitzailea* proiektuaren barruan, eta Dorleta Oiarbidek, Maddi Urdangarinek eta Enara Cuadradok argi dute haiengandik gatzela, eta garrantzitsua dela pertsona helduagoek duten ezagutzatik eta esperientziazik edatea.

Ekintza xumeak egin dituzte, tartean mahai jokoetan aritzea edo adin ezberdinetako kideekin osatutako taldeetan pintxo hotzen lehiaketa egitea. Baina ekintza xumeak askotan bizipen handiak ezkutatzeko ditu, eta egitasmo horri esker, «persona helduak eta beraiek egiten dutena gehiago baloratzen» ikasi dute gazteek. Harremanak hobetu dituzte, gehiago baloratzen dute elkar, eta hori bizitzera animatzen dituzte gainerako gazteak ere.





JAKINTZA PARTICIPA EN EL PROYECTO 'CIUDAD EDUCADORA'

El Ayuntamiento de Ordizia está inmerso en el proyecto Ciudad Educadora, en el que participa Jakintza, junto con un total de 18 organizaciones. Es un proyecto donde se determinan cuáles han de ser los pilares básicos sobre los que edificar una sociedad y que futuras generaciones sigan desarrollándolas. Para ello, el Ayuntamiento de Ordizia marcó unas pautas a seguir, teniendo en cuenta que todos los ciudadanos son agentes educadores. En este proyecto el concepto educación sobrepasa el ámbito escolar, la participación es una premisa fundamental, donde la innovación se basa en el conocimiento y ese conocimiento ha de ser trasladado de unos a otros ciudadanos.

Para lograr ese objetivo el Ayuntamiento de Ordizia realizó un diagnóstico donde se determinaron distintos proyectos basados en las relaciones intergeneracionales, el euskara, la mujeres y las relaciones entre asociaciones. Entre los participantes de este proyecto, Jakintza ha realizado distintas actividades y ha participado en actos organizados por otros entes, y durante este curso escolar desarrolla programas en los cuales el objetivo es que toda la comunidad de Jakintza sea educador, aportando y recibiendo conocimientos.

Comenzando desde los alumnos más pequeños hasta los de mayor edad, y junto con la asociación Zuhaitzi, Caritas, el centro D'elikatuz, el Ayuntamiento de Ordizia, Garagune o Ordizia Kolore, la comunidad de Jakintza está teniendo conocimiento de distintas realidades. Y basándose en ellas, han realizado actividades de manera conjunta: han celebrado el día de San Sebastián tocando el tambor en Zuhaitzi, son participes del proyecto Cesta Solidaria impulsada por Zuhaitzi y Caritas que tiene como objetivo recolectar alimentos para los más necesitados, han tenido la oportunidad de conocer distintas culturas y las realidades de cada una en colaboración con la organización Ordizia Kolore que da cabida a inmigrantes llegados a Ordizia, han estrechado relaciones entre distintas generaciones del pueblo o están recogiendo tapones de plástico para ayudar al niño Markel Lopez, que sufre la enfermedad llamada Piel de Mariposa. Además, gracias a este proyecto en el que todos los miembros de Jakintza ayudan, los alumnos han conocido la asociación Garagune, destinada a personas con capacidad reducida, y la labor que cada miembro hace en dicha asociación.

ERREPIDEKO ISTRIPUEZ KONTZIENTZIA HARTZEN

Martxoaren 3an, asteazkenean, Jakintzako DBHoko ikasleak gainerako Goierriko gazteekin elkartu ginen Ordiziako Herri Antzokian, errepideko istripuen inguruko kontzientziario programa berritzailea ezagutzeko prest.

Gazteok errepideetan egindako arduragabekeriak izan ditzaketen ondorio latzez ohartaraztea zen Stop Accidentes elkarteko helburua. Horretarako, alor ezberdinetako hainbat

adituk hartu zuten hitza, eta batak besteak baino anekdota ikaragarriagoak kontatzen bazituen ere, azalpen guztiak izan ziren lagungarriak segundo pare bateko hanka-sartzeak bizitza osorako eraginak elkar ditzakeela gogorarazteko.

Azken finean, ondorio oso positiboak atera ditugu, gugan inpaktu nahikoa sorrarazi baitzuten adituen hitzek, eta horixe baita gazteengan eragiteko modurik eraginkorrena.

SOLASALDI DIALOGIKOEN V.TOPAKETA

Hiri Hezitzailea proiektuaren barruan DBH 4ko ikasleek, Gaztelania eta Literatura ikasgaietan, Mario BENEDETTIren *Pacto de sangre* ipuinaren lanketa tertulia dialogikoen bidez egitea izan da. Metodologia horrek, irakurketa partekatzearen aberastasuna azpimarratzeaz gain, belaunaldi desberdinen arteko solasaldia sustatzen du, eta arlo akademikotik urrunduz emozio eta bizipen pertsonalen islada bihurtzen da.

Egitasmoa Ordiziako Zuhaitzi zentro Sozialean izan zen martxoaren 23an eta DBH 4ko ikasleek euren hausnarketa, iradokizun eta emozioak alderatu eta partekatu zituzten, gure gonbidapenari jadanik erantzun dioten herriko erakunde, aditu eta bertaratu diren guztiak: Kimetz emakumeen elkarte, Legazpiko eta Ordiziako eguneko zentroen koordinatzailea den Axun Jauregi (Gureak taldeko Goienetxe Fundazioa), Gureak tailerretako langileak, Ordiziako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte, Ordizia kolore eta gazteteko kideak.

Ipuinaren gaiak emozioen mundura hurbiltzen gaitu, eta norberaren emozioen ezagutzaren garrantziaz dihardu; momentu desberdinetan sentitzen dugunaz ohartzeko gaitasuna izaten ikasi behar dugu eta, ondorioz, norberak duen jarreraren ardura bakarria norberarena dela konziente izateko ahalmena da emozioen kudeaketa. Era berean, besteen sentimenduak ulertzeko gaitasuna eta enpatia, lantzen dira, oso garrantzitsua baita sentimendu horiekin bat egitea besteak oreka berreskuratu ahal izateko. Orohar, liburuaren irakaskuntza ondorengo esaldiarekin laburbildu genezake: «Sentitzen ditudan emozioen errua ez da nirea, baina emozio hauekin egiten dutanaren ardura bakarria neurea da».

Jakintza ikastolako txoko honetatik, esker mila proiektu honetan parte hartzen duzuen guztiok!

Santa Ageda bezperako tradizioa gurera ekartzeko asmoz, aurtengoan bisitari apartak izan ditugu Haur Hezkuntzako eraikinean. Batetik, Maribi Osinaldek, gure ikasle baten amonak, aho zabalik utzi zituen 5 urteko haurrak Santa Agedaren inguruko kontuekin; zein izan zen emakume hau, zer egin zioten, zergatik ospatzen den egun hau... eta beste hainbat istorio oso modu xumean eta erakargarrian azaldu zizkien haurrei. A ze artea Maribirena! Antzematen da andereñoa izandakoa dela. Mila esker Maribi!



SANTA AGEDA

Bestetik, *zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz!* abestuz, baseritarrez jantzita eta makilak eskuetan zituztela azaldu zitzaizkigun DBH1eko eta DBH2ko zenbait ikasle Manu irakaslea gidari zutela. Gure ikasleak, ez ziren atzera gelditu, ez alajaina! Ikasle *handiek* eta *txikiak* elkarrekin koplarekin bat abestu zuten eta oso giro polita sortu zen ikastolan.

El colectivo Stop Accidentes ha explicado con casos concretos los riesgos que conllevan las imprudencias en la carretera. De boca de distintos especialistas los alumnos de bachiller hemos podido conocer de primera mano qué consecuencias puede traer un despiste de pocos segundos. Las explicaciones nos han impactado y nos han hecho tomar conciencia de los riesgos que tiene la imprudencia en la carretera.

Además, los alumnos de cuarto de ESO han colaborado con distintas asociaciones de Ordizia en el proyecto Hiri Hezitzailea, que tiene como objetivo impulsar diversos proyectos. Los alumnos de Jakintza, mediante el libro Pacto de sangre de Benedetti hemos trabajado los sentimientos y hemos podido conocer que la culpa que podemos sentir por tener sentimientos no es nuestra, pero que lo que hacemos con esos sentimientos sí es nuestra responsabilidad.

Mientras tanto, los alumnos de cinco años han conocido el por qué del día de Santa Ageda de manos de Maribi Osinalde. De una manera simple pero atractiva ha explicado a los alumnos quien fue Santa Ageda y que le paso. Además, junto con los alumnos de primero y segundo de ESO han cantado las coplas de Santa Ageda. ¡Un año más ha sido un bonito día en el que hemos disfrutado mucho!

GARAGUNE



Kaixo,

5.mailako ikasleak gara, eta tapoi bilketa egitea erabaki genuen Tximeleta Azala izeneko gaixotasuna duen Markel Lopezi laguntzeko. Ostiraleroko biltzen ditugu tapoiak ikastolan, eta horregatik jarri ginuen Garagunekoekin harremanetan. Hala, ordutik, guk eskatzen diegun tapoiak jasotzera etortzen dira.

Otsailaren 18an, Garagunekoak etorri ziren gure aretora aurkezpena egitera, beraien egunerakoa erakustera eta baita kontatzera ere. Joxe Mari, Marixa, Manoli, Rosario eta beraien arduraduna den Aitziber ezagutu genituen.

Bideo batean ikusi genuen 11 Garagune daudela Gipuzkoan eta horietan zer egiten duten. Gabezia duten pertsonak joaten dira Garagunera beraien ametsak eta helburuak betetzera. Eskulanak, bisitak eta erosketak egiten dituzte, sukaldatu eta kirola egin, oporretara joaten (Zarautz, Benidorm...), herriko zenbait dendetara joaten dira laguntzera, irteerak egiten dituzte, festa bereziak joaten dira (San Ferminak, Inauteriak, etab.)... Eta ekintza horiek guztiak nola egin bileretan erabakitzen dute.

Solasaldi horretan gure zalantza guztiak argitu zizkiguten, eta ekitaldia txalo zaparrada handiarekin bukatu genuen. Gero, jarraian, denok batera argazki bat ateratu genuen.

Oso ondo pasatu genuen eta asko ikasi genuen. Bejondeiela 5.mailako neska-mutilei!!

Zuri ere gerta dakizuke

«Zuri ere gerta dakizuke» ikastaroa erizain batek eta istripu baten ondorioz bizkarrezur-muineko lesioa duen pertsona batek ematen dute. Eusko Jauriaritzako Trafiko Zuzendaritzak eta Axa konpainiak elkarrekin sustatu eta AESLEMEK (Bizkarrezur Muineko Lesioak Ikertzeko Elkarteak) garatu duen kanpainak bizkarrezur-muineko eta garuneko lesioak saihestea du helburu, eta errepideko arriskuez eta zirkulazio-istripuek eragin ditzaketen ondorio larriez kontzientziatu nahi ditu eskola-adieneko gazteak.

Zirkulazio-istripuek ez dituzte hildakoak bakarrik eragiten. Pertsona ugari zauritu egiten dira, eta, kasu askotan, bizkarrezur-muineko eta garuneko lesio larriak izaten dituzte. Hori saihesteko, hiru elkarteek lankidetzan hitzarmen bat dute 2001etik. Akordio horren parte da Euskadin egiten den «Zuri ere gerta dakizuke» kanpaina. Orain arte EAEko ikastetxeetako 150.000 gazte hartu dute parte.

IDAZLE TREBEAK

Urtero egiten den moduan, udaberriaren atarian banatu ziren Beasaingo XXV. Idazlan Lehiaketaren sariak. Aurtengoan ere jende ugari hurbildu zen Beasaingo Igartza jauregira eta benetan oso ekitaldi hunkigarria suertatu zen martxoaren 1ekoa.

Ekaitz eta Irati Goikoetxeak, betiko moduan, oso aurkezpen landua eta ederra egin zuten. Herriko agintariez gain, guraso, ikasle eta irakasle ugari hurbildu zen bertara eta ekitaldiaz gozatzeko parada izan zuten guztiak.

Idazle asko ditugu Jakintza ikastolan eta aurtengoa ere oso lehiaketa oparoa izan da gure idazleentzat. Gure ikastolako ordezkari zabalabar inguratu zen Igartza Jauregira sariak jasotzera, eta bertaratutako guztien txaloak jasotzeko aukera izan zuten. Guztira 6 sari lortu dituzte gure ikasleek aurtengoan.

Bestalde, DBH4ko eta DBHOko ikasleek Ordiziako Udalak urtero antolatzen duen komiki lehiaketan parte hartu dute, eta hauek izan dira aurtengo irabazleak: lehen sariduna DBHOko Jokin Perez, eta bigarren sariduna, berriz, DBH4ko Olatz Esnaola izan da.

Zorionak eta bejondeiela Jakintzako ikasleei!



Con el objetivo de ayudar a Markel Lopez, que padece la enfermedad Piel de Mariposa, los alumnos de quinto curso están recopilando tapones todos los viernes, los cuales recogen los miembros de Garagune. Mediante este trabajo en grupo, hemos podido conocer cual es la labor que realizan los miembros de Garagune en los 11 centros que tienen en Gipuzkoa. Son personas con discapacidad, que realizan manualidades, salidas, cocinan, hacen deporte, van de vacaciones... y lo deciden todo mediante reuniones. En el encuentro que los alumnos de Jakintza han tenido con los componentes de Garagune, los alumnos han podido conocer la labor que realizan en dichos centros.

Un año más los alumnos de Jakintza han participado en el concurso de redacciones que todos los años organiza el Ayuntamiento de Beasain. El acto celebrado en el palacio Igartza reunió a diversos alumnos, padres y profesores de Jakintza, en el cual se hizo entrega de los premios a todos los alumnos de la comarca. Además, Jokin Perez y Olatz Esnaola han sido premiados en el concurso de cómics que organiza el Ayuntamiento de Ordizia. ¡¡Felicidades a todos!!

«A ti también te puede pasar». Así se llama el curso que imparten una enfermera y una persona con lesiones medulares producidas por un accidente. La Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco y la compañía AXA, junto con la asociación AESELEME, son las que impulsan estos cursos, que tienen como objetivo concienciar a los jóvenes sobre los riesgos que traen consigo los accidentes de tráfico. Las tres organizaciones trabajan conjuntamente desde 2001, y dentro del marco de actuación se concentra dicha campaña, en la cual ya han participado más de 150.000 alumnos de la Comunidad Autónoma Vasca.

EUSKARAZ BIZI

Joan den hilean Jakintza ikastolako ikasleok eta irakasleok Euskaraz Bizi eguna ospatu genuen herrian. Guk hizkuntza guztiak maite ditugu, jakina. Baina, bada bat geure-geurea, eta hori euskara dugu. Gure nahia, gure gogoa, jolasean, dendetan, kiroletan, harremanetan, udalean, medikuekin... euskara erabiltzea da.

Hori aldarrikatuz, festa giroan beti ere, alaitasunez eta ilusioz gainezka irten ginen kalera. Ez gintuen eguraldiaren hotzak kikildu, bai zera! Bero-bero hartu genuen parte festa honetarako aurrez prestatu genituen ekintza guztietan.

Goizeko 10:30ean elkartu ginen enparantza nagusian eta zuzendariaren ongi etorria entzun ondoren herrian zehar sakabanatu ginen gure ekintzak burutzeko: jolasak (atzokoak eta gaurkoak), erosketak, kirolak, musika, AEK-ko ikasleei bisita, horma-irudiak...

Ekintzak amaitu ondoren Potxin eta Patxin pailazoak zain genituen Plaza Nagusian. Ondoren, berriz, 2.mailako abesbatzak gozatu ederra eman zien gure belarrei.

**Goiza bikaina benetan eta guztion buruan hauxe:
EUSKARAZ BESTEPE!!**



EUSKAL INAUTERIAK

Natura lozorroan dago. Esnatu!! Esnatu!! Entzuten da bazter guztietan. Bukatu da negua!! Goazen lurra esnatzera!! Bakoitzak nahi duen erara, baina Euskal Herriko herri guztietan kolorez beteriko jantziekin, musika, uju eta dantza irten dira gure natura esnatzera.

Iturenen Joaldunak, Momotsorroak eta Sorginak Altsasun, Markitos Zalduondon, Kaskarroteak Lapurdin, Atorrak Mundakan, Kotilungorriak Ustaritzen, Miel Otxin, Ziripot Lantzen, Zakuzarrak Lesakan... Eta Ordizian, zer? Ba, Ordizian Euskal Herriko pertsonaia guztiak elkartu dira ikastolan. Eta guztiak elkarrekin uju, dantza, irintzi irten dira kalera.

Zeinen jantzi dotoreak!! Ze dantza alaiak!! Herrian buelta bat eman ondoren Barandiaran enparantzian elkartu dira beraien onena eskaintzeko. Hor daude Joaldunak, Zaku-zaharrak, Miel Otxin, Sorginak, Txorimaloak, Kotilungorriak, Baserritarrak, Artzainak eta Inudeak, Luzaideko Bolantak, Txori izugarriak, Txantxoak...

Guztiek mezu bakarra: utikan mezu txarrak eta ongi etorri udaberria.

Ba ote esnatze ederragorik?



EUSKARAZ BIZI

Nosotros amamos todos los idiomas, pero hay uno en especial que lo sentimos nuestro, y ese es el euskara. Nuestro deseo es jugar, comprar, hacer deporte, relacionarnos... en euskara, que el euskara este presente en todas las actividades diarias que realizamos. Es decir, queremos vivir en euskara. Y para reivindicar todo ello, siempre en un tono festivo, salimos a las calles de Ordizia contentos y llenos de ilusión. No nos freno el frío, ¡ni mucho menos! Participamos en todas las actividades programadas para ese día.

Nos reunimos en la plaza, donde la directora del centro nos dio la bienvenida, para repartirnos después por todo Ordizia para realizar nuestras actividades; juegos, compras, deporte, música, visita a los alumnos del euskaltegi de AEK, pintar murales... Al finalizar las actividades, disfrutamos de la actuación de los payasos Patxin eta Potxin y del coro que forman los alumnos de segundo curso. Fue una mañana inolvidable, una mañana en Euskera, ¡cómo sino!

CARNAVALES

Ya es hora de que despierte la primavera. El invierno ya ha terminado, y hay que despertar la tierra. Cada cual como lo desee, pero cantando, riendo, y bailando. Y así lo han hecho los alumnos de la ikastola Jakintza un año más, ya que los carnavales de la ikastola han sido reflejo de los personajes típicos de Euskal Herria. ¿Puede imaginarse alguien, un despertar más bonito?

IKERTZEN

Ongi dakizue oso langileak direla gure ikasleak eta zeregin ugari burutzen dituztela beraien ikasketa prozesua gauzatzen duten heinean. Zeregin horien artean ikerketa jarduerak ere badute lekua. DBH 1eko ikasleak EKI proiektua garatzen ari dira eta hainbat ikerketa estatistiko egin dituzte 2. hiruilekoan.

Gauza asko ikasi dute, besteak beste, zer den fitxa teknikoa, zein den egin duten ikerketaren helburua, zer den lagin bat, lagina kalkulatu... Aldi berean, galdetegia prestatu dute lortu beharreko informazioa eskuratzeko. Hori egin eta gero, jaso duten informazioa antolatzen, maiztasun absolutua eta maiztasun erlatiboa kalkulatu, grafikoak eta konparazioak egiten eta ondorioak ateratzen jardun dute.

Egin dituzten jardura asko baliabide digitalak erabiliz egin dituzte, eta behin ondorioak aterata, garrantzitsua da prozesuari amaiera egokia ematea: ikerketaren berri eman diete Jakintzako gainerako ikasleei.



Heziketa dialogikoa



Gure ikasleen ikaste-prozesua Hezkuntzako profesionalen baitan baino gehiago haiekin lotura duten testuinguruetan oinarritu beharko genuke. Ikasketa prozesu hori, prozesu kolektibo eta dialogiko baten barruan zedarrituta dago, eta komunitateko erreferentei loturik (familia, ikasleak, irakasleak, giza-eragileak...) aldaketa ikur bilakatzen dira.

Horrela izanik, ikasle-taldeak, testuinguru esanguratsua den heinean, beste ikasle batzuen ikaste-prozesuan du ardurua eta protagonismoa. Euren disenatutako eta antolatutako hainbat eginkizunetan dira erreferentzia (antzezlanak, jokoak, ezagutza-trukaketa, hitzaldiak...) hartzaile diren gainerako ikasleentzat, eta, zer esanik ez, hauek pozez zorutzen hartzen dituzte eta modu eraginkorragoan ikasten dute.

Illo honetatik, aipagarria da, batez ere, DBHko ikasleek egindako lan eskerga LH eta HHko ikasleekin. **Gora gu eta DBH-tarrak!!**

Gizonezkoa vs emakumezkoa



Pertsonok historian zehar pairatu dugun generoei dagokien diskriminazioaren azterketa hainbat jarreratan, jokabidetan eta estereotipotan badute oraindik ere indarra gure gizartean.

Aurreiritzi sexistak gainditzeko eta giza-erlaldaketa sakona bultzatzeko xedearekin, 90eko hamarkadan Hezkidetzeta-plana jarri zuen abian Hezkuntza Sailak, eta curriculumeko zehar lerro izan arren, bide luzea geratzen zaigu oraindik normalkuntzara iristeko.

Horrela, Ana Elozegi Harremanak taldeko arduradunaren ustez, eskolak bizitzarako baliagarriak diren balio guztiak integratu beharko lituzke, bai emakumezko, bai gizonezko generoari atxikitakoak. Hori litzateke, bere hitzetan, benetako aukera: berdintasunerako heziketa eskaintzea.

Eta horretaz mintzatu gara luze eta zabal Jakintza ikastolako irakasleok.

Dentro del marco académico de Jakintza, también tiene cabida la investigación. Así, los alumnos de primero de ESO están participando en el proyecto EKI, donde deben realizar investigaciones estadísticas. Han aprendido qué es una ficha técnica, cuál es el objetivo de cada investigación, qué es una muestra, para qué sirve... así como realizar un formulario para lograr la información necesaria para ello y después ordenarla, calcular la frecuencia absoluta y relativa. Una vez recopilada la información, han sacado conclusiones, las cuales las han explicado ante el resto de alumnos.

El proceso educativo de nuestros alumnos debe estar unido a un proceso colectivo y dialógico, atado a los referentes de la comunidad. Así, el conjunto de alumnos se convierte en referencia para el resto de alumnos, ya que son los protagonistas de las actividades que realizan: teatros, juegos, conferencias... y así el método de aprendizaje es más efectivo.

Los profesores de la ikastola Jakintza, han analizado en profundidad el tema de la igualdad entre hombres y mujeres, y el papel que eso juega en la educación, donde todavía queda mucho por hacer.



Badira ia 30 urte argazki hau atera genuela ikastolako patioan. Urte asko pasa dira, baina burura etortzen zaizkidan oroitzapenak ez ditut ahaztu; batzuk alaiak dira, maitagarriak, eta beste batzuk ez hain gozoak.

Argazkia ikusi eta zenbat aldatu garen konturatzen naiz. Askok ez dira Ordizian bizi eta elkar ikusten ez dugula urte batzuk badira. Hori dela eta, aurten elkartu gara lehen aldiz 1979an jaio ginenak oroitzapen horietaz guztietaz hitz egiteko.

Maria Pilar irakaslea kalean ikusten dudanean oroitzapen horiek guztiak etortzen zaizkit burura, bereziki bat. Martxoaren 23an Korrika iritsiko da Ordiziara. Duela 30 urte ere iritsi zen eta ikastola guztia atera ginen korrika egitera. Malkaskon bukatzen zen gure ibilbidea, baina tropelean erabat murgildurik joan nintzen, eta konturatu nintzenerako Beasaingo Pergoletan azaldu nintzen bakarrik. Gogoan dut oraindik ere irakaslearen ardura aurpegia ikusi ninduenean.

Horrelako eta bestelako makina bat pasadizo bizi izan ditugu ikastolak izan dituen eraikin ezberdinetan.

A.S



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net



ikastolenelkartea